

~~TA~~



Irudi-egile: Urbieta'tar Ixidor

IMPRENTA OMEGA-Calle T, n.º 2, planta 5.<sup>o</sup>

Dep. Leg.: BI-993-67



**LO TA AMETS**

Etxebarria'tar J. A.

Etxebarria'tar Juan Anjel

**LO TA AMETS**

S.Anton'go Katekesia  
Euskal-argitalpenak

# AGERTUTAKO IDAZTIAK:

1. Phedro'ren Alegiak I
2. Martial'en Ziri-Bertsoak I
3. Phedro'ren Alegiak II
4. Fatima'ko Ama Birjiña ta Umeak
5. Euskal Iztegi Laburra (A)
6. Esopo'ren Alegiak I
7. Agustin Deunaren Eskutitzak I
8. Gurutz-Bidea
9. Phedro'ren Alegiak III
10. Batikano II Batzar-Agiriak (Eleiza ta kristau ez diran beste erlijioak)
11. Perrault'en Ipuiñak (2-garren argitalpena irarteko)
12. Batikano II Batzar-Agiriak (Gizarte artuemonetako bideak)
13. Apuntes de Vascuence (Segundo Curso)
14. Lope de Vega - Bakar-Autuak
15. Liturji - Goratzarreak
16. Jaungoikoaren Agerpena (Batikano-agiriak)
17. Maitale Galdua (olerkiak)
18. Lati-izkuntzaren joskera (Orixe)
19. Euskal Iztegi Laburra (B-D)
20. Kristau - Aziera (Batikano Agiriak)
21. Euskal Iztegi Laburra (E-F)
22. Basoko Loreak (olerkiak)
23. Lo ta Amets (olerkiak)

Algorta'ko

Maguregi'tar Begoña'ri:

(bere urte-egunean, 31-VII-67)

JARDUKERA

Ixil-ixillik,

gozo-gozoki.

Geldi-geldirik,

sakon-sakonki.

Ixil-ixillik,

gozo-sakonki.

Ixil-geldirik,

maite-maiteki.

I

Lo, maiteño.

Lo, izarño.

Lo, kutuna.

Lo, amana.

Lo, astiro.

Lo, gozoro.

Lo, maitea.

Lo, nirea.

II

Lo, ene maite.

Lo, ene bizi.

Gelditu zaite  
lo, orain ta beti.

Nire arnasa  
zure bizgarri.

Nire biotza  
zugaz jostari.

Lo, lo, kutuna.  
Egizu amets  
maite nozuna  
biotz-biotzez.

Nire eskuetan  
zure eskutxua.  
Nire maitean  
zeu bat-batua.

Au lo gozoa  
ta amets poza!  
Ene aurtxoa,  
nire bizitza!



6

III

Zure esku txiki,  
bigun-bigunok.  
Esku jostari,  
esku nireok.

Naikoa dira,  
ezerez arren,  
amets-lurbira  
ibilliazten.

7



8

IV

Nire begiak  
maite-izpiaz  
zukan josiak,  
izpi beroaz.

Zure begiak  
izpi maiteaz  
nigan josiak,  
izpi bigunaz.

9



10

V

Nire eder ori,  
seaskatxoan  
barre ta irri  
etengabean.

Ene potxolo,  
ta zeri buruz?  
Iratxo lelo  
bat bera izutuz?

Ondoan ama  
dauka-ta, barrez,  
egaz darama  
iratxoа iges.

Egin barre, eder,  
emen naukazu.  
Iratxoа alper  
etorko yatzu.

Ene aur txiki  
barre-algaraz.  
Lillurazko jai  
batera goaz!

Bere barrea,  
ur-jauzi bat lez,  
biotz-leizea  
bete bearrez.

11

VI

Bere mosu gorrizka  
malluki bat legez.  
Bere mosu baltzaran  
masusta-kolorez.

Nire amets-zelaian  
erne da. Maite-lur  
au irauli dot-eta,  
itxaropena atxur.

VII

Nire aragi-zatia,  
nire odol-tantakada.  
Nire biotz-taupada bat,  
nire maitasun-lore da.

Mosuka jan bear zaitut.  
Jan nagizu zeuk, autsikiz.  
Estutzen zaitudanetan  
erdi eiten zaitut barriz.



VIII

Ene aurtxoa  
negarrez dago.  
Ixo, laztana,  
zurekin nago.

Zer dok, nirea?  
Iratxo motza  
zu izututen  
etorri, antza.

Ez, ez da iratxo  
urrun-bearra.  
Aman mosua  
laztandu gura.

Ene aurtxoa,  
etor onago.  
Malko-laiñoak,  
joan asago.

Lo dago nire  
errai-zatia.  
Ezpanetan ba-  
dau barre eztia.

Begiak itxi  
dauz abes-lelo  
azkena-antzera.  
Gozo-gozo, lo...

Eskuak toles  
ditu bigunki.  
Soiña luzatu,  
leun-zabalki.

Arnasa artuaz  
bularra anditzen  
yako, gorputza  
dardaratutene.

Loak artu ez.  
Berak loa artu  
ta amets-mataza  
baten arildu.

Aurtxo biguna  
nire eskuetan.  
Barre, elkargana  
eragitean.

Andi egingo  
da egun baten  
eta urrungo  
lurrean illen...

Aurtxo nirea,  
nire aragi  
berbera, aitzea  
ba'neuko beti!

Jun zaitez urrin.  
Bizi ba'zara,  
beti nirekin  
gaurko dardara.



18

XI

Bular-ondoan  
bero-berorik  
zu estutzean,  
bero ta pozik...

Ene txikia,  
ene nirea,  
edan titia,  
aman esnea.

Nire bularra  
zeutzat azia.  
Edan, ederra,  
nire bizia.

Autsiki egin  
daust. Ene seiña!  
Odol ta mamin  
zeutzat egiña.

Jan-edan naizu  
gun eta azala.  
Ein bear nozu  
zure atala:

Nire zartzaro-  
zugatz igarra  
zeuk apainkiro  
jantzi bearra.

19



Ene txiki  
zein ederki  
nire altzoan kulunkatuten.

Ene aurra  
zein ederra  
nire altzoan barre egiten.


Ene zeru  
eta aingeru!

## XIII

Nire aurraz etzunda  
 nago oe epelean.  
 Ni itzar eta bera lo.  
 Biok ametsetan.  
 Berak amets eiten dau  
 izketa gozoan  
 nagokiola ona  
 dalako. Nik, etzan  
 dala bera, lo, nire  
 maitetasunean.

## XIV

Pa bat emongo,  
 zintzo ba'zara.  
 Pa bat, zelango  
 gozo-dardara!  
 Zintzo da, baiña  
 ezin pa emon.  
 Geldi ba'ziña,  
 oraintxe berton!



24

XV

Arin, kutuntxo.

Arin, amagaz.

Egin apurtxo  
baten lo, nigaz.

Aingerutxu bat  
etorriko, bai,  
zerutik zeutzat,  
lo-ametsen zai.


Egin lo apur  
bat nigaz, emen.  
Ez izan bildur  
amets gaiztoen.

25

Maitasun-itzak  
zuri esaten  
nabil beti, ez  
lo, ez atseden.

Maite-itz gozo-  
gozoak zeutzat  
asmatzen beti.  
Ia, ia, bat...

Maitasun-berbak  
zuretzat ekar  
gura ta... mosu  
bat doa, dar-dar...



## B I L L A B I D E A

<u>Neurtitzak</u>	<u>Orrialdeak</u>
I - Lo, maiteño . . . . .	4
II - Lo, ene maite . . . . .	5
III - Zure esku txiki. . . . .	7
IV - Nire begiak . . . . .	9
V - Nire eder ori . . . . .	11
VI - Bere mosu gorri zka . . . . .	12
VII - Nire aragi zatia . . . . .	13
VIII - Ene aurtxoa . . . . .	15
IX - Lo dago nire . . . . .	16
X - Aurtxo biguna . . . . .	17
XI - Bular-ondoan . . . . .	19
XII - Ene txiki. . . . .	21
XIII - Nire aurraz etzunda . . . . .	22
XIV - Pa bat emongo. . . . .	23
XV - Arin, kutuntxo . . . . .	25
XVI - Maitasun-itzak . . . . .	27